

LAN ESKAINTZEN ATARIAN LANPOSTUAK AUKERATZEKO JARRAIBIDE OROKORRAK

OSO GARRANTZITSUA – KONTUAN HARTZEKO OHARRA.

8.6.3 oinarri orokorraren arabera, bertan zehaztutako epean eta eran lanposturik aukeratzeko ez duten pertsonak galdu egingo dituzte hautaketa prozesuan parte hartzeagatik lortutako eskubideak; eta hori gertatuko zaie aukeraturiko lanposturen bat esleitu ezin zaien pertsonari, aukeraturiko lanpostu guztiak eskubide hobeko beste pertsona batzuei esleitu zaizkielako eta lanpostuak eskaini zirenean aukeratu ahal izan zituzten beste lanpostu batzuk, markatu ez zituztenak. Hortaz, halakorik gerta ez dadin, gomendatzen da aukeratzeko interesdunak bete ditzakeen ahalik eta lanpostu gehien, esleitu ahal izateko, horrela, promozionatzeko bidea emango duen lanposturen bat.

Esate baterako, zerrendako 9. postuan dagoen pertsonak zenbaki hori baino lanpostu gutxiago aukeratzeko baditu, demagun bost, lanpostu gehiago aukeratzeko baduenean betetzen dituelako baldintzak eta baduelako hizkuntza eskakizuna, eta bost lanpostu horiek esleitzen bazaizkie zerrendan bere aurretik dauden pertsonari, ezingo zaio esleitu lanposturik, eta prozesuan parte hartzeagatik lortutako eskubideak galduko ditu.

- 1) Lan Eskaintzen Atarian sartu esteka honen bidez, erabiltzailearekin eta pasahitzarekin.
- 2) Sakatu **Zure eskariak** atalean.
- 3) Koka zaitez gairik duzun prozesuaren lerroan, eta eskuineko azken zutabearen – **Lanpostuak hurrenkeraren arabera eskatzea** dioen horretan–, sakatu **gezi berdean**.



Zure eskariak

Atal honetan UPV/EHuren lan-eskaintzen deialdian parte hartzeko egin dituzun eskariak kontsultatu ahal izango dituzu.

Halaber, Ordainketa Sistemara sartu edo dagokion ordainagiria inprimatu ahal izango duzu tasa ordaintzeko, beti ere eskariak aurkezteko epea irekita badago.



ZURE ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN HAUTAKETA PROZESUAK							
Deialdia	Hautaketa-prozesua	Eskariak aurkezteko epea	Eskaria kontsultatu	Zerrenda kontsultatu	Puntuazioa kontsultatu	Lanpostuak hurrenkeraren arabera eskatzea	
EPE 2019_2020_2021_2022 AZPko F/L	Gestioko teknikarien eskala - Gestio Orokorra (Barne promozioa)	2022-11-08 -> 2022-11-28					
EPE 2019_2020_2021_2022 AZPko F/L	Artxibo, Biblioteka eta Museotako fakultatiboak - Biblioteka (Barne promozioa)	2022-11-08 -> 2022-11-28					

- 4) Eskatu ditzakezun lanpostuen zerrenda agertuko zaizu. Lerro bakoitzeko eskuineko azken zutabearen –“Hurrenkerak” dioenean– laukitxo bat agertzen da: hori ipini behar da lanpostu horri eman nahi diozun hurrenkerak zenbakia:



DEITUTAKO LANPOSTUAK AUKERATZEA

AUKERATU NAHI DITUZUN LANPOSTU GUZTIAK ETA ADIERAZI EZAZU BAKOIZERAKO LEHENTASUN-ORDENA

Kontuan izan esleipena lanpostuaren eskakizunen, gairik duzun zerrendako behin betiko ordenaren eta zuk adierazitako lehentasun-ordenaren arabera izango dela.

Gestioko teknikarien eskala - Gestio Orokorra (Barne promozioa)

Marka	Taldea	LZko zenb.	Lanpostuaren izena	Hor.	Maila	H.E.	Bet. Esp.	Campusa	Lantokia	Lanaldia	Hurrenkerak
	AB	F1157	Ikastegiko Teknikaria	12	23	PL3-2009/09		BIZKAIA	Arte Ederren Fakultatea	NORMALIZADA	<input type="text"/>
*T	AB	F1150	Ikastegiko Teknikaria	8	23	PL3-2009/09		GIPUZKOA	Psikologia Fakultatea	NORMALIZADA	<input type="text"/>
	A1	F1134	Campuseko Zerbitzuko Burua	3	26	PL3-2009/09		BIZKAIA	BIZKAIAK CAMPUSEKO GERENTEORDETZA	NORMALIZADA	<input type="text"/>
	A1	F969	Azterlan, Agiri eta Proiektuen Arduraduna	1	24	PL3-2002/12		BIZKAIA	Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko Errektoreordetza	NORMALIZADA	<input type="text"/>
	A1	FA000	NIRE LANPOSTUA (A)	1	0				UPV/EHU		<input type="text"/>
	A1	F645	Berrikuntzaren Teknikari arduraduna	1	24	PL3-2017/09		BIZKAIA	Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza	NORMALIZADA	<input type="text"/>
	A1	F936	Ongizate Laguntza eta Lan Harremanetako Teknikari Arduraduna	1	24	PL3		BIZKAIA	Pertsonaleko gerenteordetza	NORMALIZADA	<input type="text"/>



5) *Lanpostu batzuen ezkerretara "T" bat agertzen da: horien eskuragarritasuna titularraren erabakiaren menpe egongo da, hark izango baitu lehentasun osoa lanpostu horretarako. Dena dela, gainerako pertsonak ere aukera dezakete lanpostu hori gura duten hurrenkeran, azkenean haren titularrak beste lanpostu bat eskuratuko balu eta hori hutsik geratuko balitz.

Eskainitako lanpostu baten behin betiko titularra lanpostu horretan promozionatu ahal izango da; aukeraketan lanpostu hori bakarrik adierazi beharko du. Kasu horretan, 8.6.2 oinarriko arau espezifikoan ezartzen den bezala, abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 22.1 artikuluko azken-aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, pertsona hori hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera sistematik kanpo geratuko da destinoak esleitzeko.

6) Hautatutako lanpostuetan lehentasun-ordena behar bezala bete dela egiaztatu ondoren, "**Datuak gorde**" botoia sakatu behar da, lanpostuen zerrendaren azpian dagoena. Kontuan izan pantaila hau nahi adina aldiz aldatu ahal izango dela postuak aukeratzeko epearen barruan, baina gorde den azken hautaketak bakarrik izango du balioa, adierazitako epearen barruan "**Datuak gorde**" botoia sakatuz, eta aurreko guztiak ondoriorik gabe geratuko dira. Egindako hautaketaren frogagiria inprima daiteke, "Inprimatu" botoia sakatuta.

Itzuli

Datuak gorde

Inprimatu

ADMINISTRARIEN ESKALARA PROMOZIONATZEKO JARRAIBIDE GEHIGARRIAK

Administrarien eskalara promozionatzeko eskainitako lanpostuen zerrendan lanpostu bat gehiago agertuko da, ***NIRE LANPOSTUA** izenarekin.

*NIRE LANPOSTUA eskatzailea behin betiko titularra den lanpostua da, lehiaketakoa izan nahiz izendapen askekoa izan. Bi taldetara irekitako lehiaketako lanpostu bat izan daiteke, taldeetako bat goragokoa delarik (=talde hori zeinetara promozionatzen den). Halakoetan lanpostua bere kasa ere agertuko da, bere ezaugarri guztiekin, edonork aukeratu ahal izan dezan (beti titularraren erabakiak baldintzaturik, jakina). Lanpostu horretako titularrak bi modutara aukeratu ahal izango du bai lanpostu zehatz horri 1. hurrenkera zenbakia ezarriz, beste lanposturik aukeratu gabe; bai NIRE LANPOSTUA hautatuz; batera zein bestera, emaitza bera izango baita.

Gainera, honako hauek ere promozionatu ahal izango dira beren lanpostuan, nahiz eta aurreko baldintza ez bete (kasu horietan NIRE LANPOSTUA izen orokorra baino ez da agertuko, gainerako hautagaiek ezin izango baitute aukeratu, titularrak erabakitzen duena erabakitzen duela ere):

- Administrari laguntzaileen lanpostuetako titularrak. Beren lanpostua administrari orokorren lanpostu bihurtuko da, C/D taldekoa, 18. mailakoa.
- Bibliotekako administrari laguntzaileen lanpostuetako titularrak. Beren lanpostua bibliotekako teknikari laguntzaileen lanpostu bihurtuko da, C/D taldekoa, 18. mailakoa.
- Izendapen askeko C/D lanpostuetako titularrak.

Kontuan izan, NIRE LANPOSTUA aukeratzen bada, (edo, zerrendan badago, lanpostu hori bere ezaugarriekin) ezin izango dela lanpostu gehiago gehitu zerrendara, zeini berea automatikoki esleitu baitzaio, beste edozein aukera gorabehera. NIRE LANPOSTUA aukeratzea bateraezina da beste edozein lanpostu aukeratzearekin, baina lanpostuz igotzea ziurtatzen du, titularrak gaitututakoen zerrendan duen hurrenkera zenbakia edozein dela ere.